

# *ttipi-ttapa*

1991.eko Uztailak 18

66. zenbakia

dohain banatzen da



# SAN MARTIN LANBIDE ESKOLA

Tfnoa: 59 20 06 – Oronotz-Mugairi



## INGELES IKASTAROA

IRAKASLE INGELESEK EMANA

**NOIZ:** Uztailaren 8tik  
Abuztuaren 2ra.

**ORDUAK:** Egunean 4 ordu  
arratsaldeko 4-8etara.

**APUNTATZEKO** deitu 592006 Tfnoa

CAJA LABORAL (P) EUSKADIKO KUTXA



## Elkartasunezko jai-giroan!

Alaitasuna, poza, jolasa eta ilusioak gainezka dauzkagun une honetan, Herriarengandik hurbil egon nahi dugu. Herriaren zati bat sentitzen garelako. Horregatik, festa-giroan elkarturik, egun alaiak gozateko aukera, guztiona izan dadila.

Euskadiko  
Kutxa



# non - zer

**4 AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.

**7 HONTAZ ETA HARTAZ**

**8 IRAKURLEAK MINTZO**

**9/31 HERRIZ HERRI**

Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...

Elizondoko bestetako koadernilloa

**32 ELKARRIZKETA:** Xorroxin Irratia: "Irrati municipalen bidea jorratuko dugu. Joseba Igarabiderekin solasean.

Josemanuel Irigoien

**34 MERKATU TTIKIA**

## ttipi-ttapa

**HAMABOSTEKARIA**

Lege Gordailua: NA-1324/85  
Tirada: 4.600 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1  
31780 BERA  
Tfnoa.: 63 11 88

**Erredakzio arduraduna:** Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** R. Harribilaga, Oskar Txoperena, P. Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Jon, Arantxa, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Antton, Patxi Petrirena, Olhain Elkarte, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldia Argazkiak, Mattari, Fermin Alzuguren, AOT eta Enbido-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritzara...

**Inprimategia:** Jomisa (Irun)

*ttipi-ttapa* aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

**Beharrezko telefonoak**

SOS Nafarroa .....	088
<b>OSASUN ZENTRUAK</b>	
Elizondo.....	452367 / 580235
Doneztebe .....	450300
Lesaka.....	637428/637336
Leitza .....	510248 / 510573
<b>KONTSULTAK</b>	
Arizkun .....	453039
Gartzain .....	580451
Oronotz-Mugaire .....	592024
Ituren .....	450183
Sunbilla .....	450283
Goizueta .....	514067
Igantzi .....	637755
Arantza .....	634131
Bera.....	630929 / 630036
Etxalar.....	635105
Urdazubi.....	599130
<b>ANBULATORIOAK</b>	
Irun .....	630264/621106
<b>OSPITALEAK</b>	
Irungo ospitalea .....	614600
Nafarroako ospitalea.....	102100
SSko urgentzi zerbitzua .....	246750
Virgen del Camino erresidentzia .....	262700
Gurutze Gorria .....	226404
<b>ANBULANTZIAK</b>	
Oitz .....	450242/450342
<b>DYA</b>	
Lesaka (larrialdiak).....	(943)464622
Elizondo (larrialdiak).....	171717
<b>FUNERARIA</b>	
Lesaka.....	637404
<b>SUHILTZAILEAK</b>	
Oronotz-Mugaire .....	592044
<b>GARRAIOAK</b>	
Bidasotarra .....	630279
Baztanesa .....	580129
Leitzarlan .....	515018
<b>HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:</b>	
Elizondo .....	580730
Lesaka .....	637154
Bera .....	630104
<b>ABERIAK:</b>	
Iberduero .....	450335/450336

**Deialdiak**

► **IGANTZI**, Uztailaren 18an, arratsaldeko 6etan, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Aholkularitza Batzordearen bilera

**Botikak**

► **Uztailaren 20-21ean**, Lesaka, Sunbilla eta F. Iturralde (Elizondo).

► **Uztailaren 25ean** Arantza, Ituren eta F. Lezaun (Elizondo).

► **Uztailaren 27-28an**, Etxalar, Doneztebe eta F. Iturralde (Elizondo).

**Kirolak****TXIRRINDULARITZA**

► **ELIZONDO**, Uztailaren 21ean, kadete karrera Club Ciclista Baztandarrak antolatua.

► **BERA**, Uztailaren 27an, kadete karrera Gure Txokoak antolatua eta abuztuaren 4ean Club Ciclista Beratarrak antolatua..

► **ELIZONDO**, Uztailaren 28an, afizionatuen karrera Club Ciclista Baztandarrak antolatua.

**Bestak**

► **ITUREN**, Uztailaren 19, 20, 21 eta 22an.

► **ELGORRIAGA**, Uztailaren 24, 25, 26, 27 eta 28an.

► **ALKAIAGA**, Uztailaren 24 eta 25ean.

► **ELIZONDO**, Uztailaren 24, 25, 26, 27, 28 eta 29an.

**Erakusketak**

► **ELIZONDO**, Uztailak Setik 19ra Arizkunenean, Irene Molinaren pintura erakusketa.

**Bota bertsoa****Txomin Amorena**

**Gaia:** Udaberriko kukuari

**Neurria:** Zortziko txikia

Orain artean zure  
egonikan mutu  
guk ez ikusteko ba  
etzaiten ezkutu  
hosto petikan kantuz  
kuku eta kuku  
zure kantuak ere  
emandezan frutu

Koloreaz iluna  
bihotzez argia  
zure umea ere  
bertzek du hazia  
kantuak agertzen du  
gure uda berria  
guzientzat ba hori  
ongi da etorria

# AGENDA

## Bestak

### BAZTANDARREN BILTZARRA

► **ELIZONDO**, Uztailaren 20 eta 21ean.

**Larunbata 20:** Arratsaldeko 8etan Catalunya Lliça d'Amunt dantzari taldea herriko plazan. 9,30etan, Nafarroako sokatira txapelketaren kanporaketa Elizondoko frontoian. 11etan Kantaldia GUK taldearekin herriko plazan. 12etan, gaupasa Aritza eta Kanka taldeekin.

**Igandea 21:** 10etan dianak herrietan eta eskulangileak. 11etan Catalunya Lliça d'Amunt. 12etan orga apainduen desfilea. 1,30etan mutil dantzak eta 2,30etan herri bazkaria eta ondoren soinu-lari, abeslari, bertsolari, etabar. 6,30etan herri kirolak Merkatuko plazan eta 8etan dantzaldia Izadi taldearekin.

## Gastronomia

### BAKAILUA



Maria Jose Portuk emana  
**IRUBIDE** Jatetxea - LESAKA

#### Osagaiak 4 lagunendako:

Kilo bat bakailu, 2 tipula, 2 kuxtare tomate prejitua, pi-

Kazula bat suan jarri olio-arekin. Pixkat berotzen denean tipula xehetua eta baratzuria bota, prejitua eta bakailua paratu su bajaran ezari ezarian egin bere saltsan.

Saltsarik gabe gelditu baltz, arrai salda bota.

Ondoren, bi kuxtare tomate pixkat utzi eta piperrak eta perrexila azken orduan bakailuaren gainean jarri.

## Baserriko feria



### ► ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kiloko): 6.300pzta. **Zerrigizena** (95-100): Ez dago prezio zehatzik. **Urdamak:** 80-100 pzta./kilo bizirik.

### ► BEHIKIA

•Aretze gizenak:  
**Idixkoak:** Pzta/kg. Kanal Extra.....530  
1.koa.....490  
2.koa.....450

**Urruxak:** Pzta/Kg. Kanal Extra.....560  
1.koa.....525  
2.koa.....480  
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

**Baztango aretzea:** 625 pzta/kg. Kanal.

•Behi zaharrak:  
Behi nabar gizena: 365 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri

ona: 380 Pzta /Kg. Kanal.

### •Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

**Nabarrak:** urruxak 15.000 eta idixkoak 24.000 Pzta.

**Mestizoak:** urruxak 26.000 eta idixkoak 34.000 pzta

### ► BILDOSKIA

• 12 kgkoak 430-440 pzta bizirik

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



**MALDAERREKA S.A.**  
**FUNERARIA ZERBITZUAK**

Bittiria karrika - Tfnoa: 637404- LESAKA



**SANTAMARIA**  
**Jatetxea**

Espezialitatea euskal sukaldaritzan  
**Eguneroko menua eta karta**  
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

**LEGARRA**

PAPERTEGIA  
TABAKOAK  
LIBURUAK  
OPARIAK

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

**GRUPO**  **ZURICH**

**ASEGURO OROKORRAK**

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

## 11 galdera ilabur



► **Lurdes Arraztoa**  
Euskara Teknikaria

- Zer nahiago, funtzionari ala langile? Funtzionari.
- Paperak euskara hutsez ala bietara? Bietara.
- Paperak itzultzea ala kanpainak antolatzea? Kanpainak antolatzea gustokoago dut, jendearekin egoteko aukera ematen du eta.
- Udala ala Eskola? Biak, baina eskola nahiago.
- Ikastaroak ala kultur ekintzak? Kultur ekintzak.
- Idazmakina ala ordenadorea? Ordenadorea.
- Gosaltzeko ordua ala bazkaltzekoa? Bazkaltzekoa.
- Ura edo ardoa? Ura.
- Udako bestak ala neguko diskoteka? Udako bestak.
- ETB ala TVE? Ez dut telebistarik ikusten.
- Bizitzeko, Gartzain ala Elizondo? Gartzain.

## Zinema



► **Amor Perseguido**  
Alan Rudolph  
USA 1990



Alan Rudolph azken bi filmak nahiko penagarriak izan ziren. "Hecho en el cielo" eta "Los modernos" nahiko urruti gelditzen ziren, orain dela urte batzueko publiko eta kritika aldetik hain ongi hartuak izan ziren "Elígeme" eta "Inquietudes" etik.

Hogeitamar urte inguruko pertsonai, beuren bizian erdi galduak eta etsitzen ez zutenak, taberna inpersonalak, hiri eurtu eta traszen-

dentzi haundirik gabeko egoerak tratatzen zuten bi filma hauek, pentsatzen zen baino arrakasta haundiagoa izan zuten munduan zehar.

Ondorengo biak hanka sartzek izan ziren. Oraingo berri honetan indartu

egiten da bainan ez nahikoa.

Haundikeriarik gabe egina, lasaia, elkarren bila eta aurkitu ezinezko dabilzan pertsonai hauekin berriro.

Garai batean Robert Altmanek egin zituen pelikulak baino gozago eta lasaia-

goak dira Alan Rudolphena.

Ikusgarri xamarra dugu pelikula hau, bertze filma aipagarririk ez dagoenez.

MARIANO



**AFRO  
REGGAE  
ZOUK**

**ZAGIT**

Taberna. JARAUTA, 98.  
IRUÑEA. Tfnoa: 22 14 40

## ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa  
Altzate 28 - BERA

## ETXEGARAI

### BIDEO KLUBA

Telebista eta Bideoak  
Antena kolektiboak eta  
banakakoak  
Konponketa tailerra

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

# OKANE

Haragi, janari-izoztu  
enbutido, yogurt...


SEKULAKO AUKERA  
PREZIO ETA  
KALITATEAN

Kanttonberri 4,  
Tfnoa: 63 00 18

**BERA**

# HONTAZ ETA HARTAZ

## BAZTANDARREN BILTZARRA 91




**Baztandarren Biltzarra 91** iragartzen duen kartela Burlatako Jose Luis Frantzez Apezetxeak egina da, lehiaketarako hogeitabat lagun presentatu zirelarik. Ekitaldiak, hilaren 20 eta 21ean burutuko dira.



**Aurten belar** aunitz soroetan eta eguraldia arras nahasia! Hau komeria. Iaz ez zen horrelakorik gertatzen; belarra eskax eta eguzkia berriz soberan. Ez dute ez baseritarrek arrazoi faltarik kexu egoteko.



Txirrindularitzaren garaia iritsi da udarekin batera. Donezteben, Elizondon eta Lesakan egindako frogen ondoren orain eginen dire Elizondon (Uztailaren 21ean), Beran (Uztailaren 27an) eta Elizondon (Uztailaren 28an)



**Halere, uda garaian** besta ditugu protagonista. Lesakako Sanferminak ez ziren izan nolana hikoak. Larunbatean etorritako jendetzak bette-bette utzi zituen herriko karrikak. Dударik ez, jendea erakartzen dutela besta hauek.

### INFORMAZIOA:

- Nominak
- Aseguro Sozialak
- Lan-kontratu bonifikatuak
- Enpresa berrien sortzea
- Diru-laguntzak
- Errenta Deklarazioak
- Kontabilitateak

## ARTEKARI S.L.

### ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

#### KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

#### LESAKA:

- Asteazkenean, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.  
Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

#### IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40  
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



## AZALPEN INFORMATIBOA

Aintzinako TTPI-TTAPAN, uztailaren 4koan, ateratako informazio bati erantzun nahi diogu. Bertan, defiziente mentalentzat bizitzen eraiketaz dagoen proiektu batez, Legarbidean, hitzegiten zen. Informazio hori irakurri bezain agudo, Bizilagunen Komisio Informatiboa erantzutera behartua dago

irakurlego osoak jekin dezan ondorengo puntualizazioak eginez:

**Lehenbizikoa:** Udalarizuzendutako idatziak, proiektuari buruzko informazio zehatza eta ofiziala lortzea du helburutzat, batipat hontaz zabaltzen diren berri kontrajarriak kontutuan izanik...

**Bigarrena:** Arazo honetarako eraturtako Batzorde Infor-

matiboak beharrezkotzat jotzen du partaide izatea auzolagunen ongizatean eragina duten proiektu desberdinetan (nahiz heziketa arlokoak, nahiz kirol arlokoak, e.a.)

**Hirugarrena:** Aurrean errandako

guzia dela eta, desegokitzat jotzen ditugu aipatutako informazioan egiten diren deskalifikapenak, behinik behin errespeto eta

heziketa zuzeneko eredu izan beharko zuketean pertsonetatik datozenean.



Legarbideako Batzorde Informatiboa

15.937.886

## Oharra

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi

duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, erredakzioak bere esku izanen du horretarako eskubidea.

## Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630529 - BERA



**S. Semper**

**Nekazal Tresneria**

Salmenta eta konponketa tailerra

Ergoien auzoa, Tf.: (943) 490619 - OIARTZUN

BERAn, Agerra Industrialdean

## ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06

BERA

## EKAITZA OSTATUA

Altzate - BERA



**EUSKALDUNA  
JATETXEA**

Tfnoa.: 63 03 92  
BERA

## SAROB okindegia

**SANDERS Pentsuak**

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA



**MUSIKA DENDA**  
BERA ☎ 631059

- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...




### “Uxane”ko ikasleentzako etxebizitzaren erosketa bultzatu egingen du Udalak

ROMAN HARRIBILAGA


Bortzirietako Oinarritzko Gizarte Zerbitzu Mankomunitatearekin batera “Uxane” ikastetxeko zenbait ikasleentzako etxebizitzak erosteko proiektuarekin aintzineraz segitzeko erabakia hartu du ahobatez Herrialde, EA eta HB udal taldeek osatzen duten Berako Udaltzako osoko bilkuran.

Aldiberean, “eskualdean diren beharren arabera, zerbitzu hau Bortzirietako Oinarritzko Gizarte Zerbitzu Mankomunitatearen barrenean hartzea nahi da” Udalak dioenez, edozeinek “akordioei buruzko informazio fidagarriak idazkariaren egiaztapenaren bidez lor dezakeelarik” erantsiz.

“Gizalegeko zerbitzua” Era berean gai beraz “ASPACE”k hartutakoei ematen ari zaien hain premiazkoen zerbitzuaren zabaltzerako aurreproiektu bat da hau *“uhonetan”* adierazten du



Legarbidetako proiektuarekin aintzineraz jarraitzea erabaki du Udalak



Urruñarrak fanfarre batekin etorriko dira Sanestebanetara

Udalak, “*pentzazina delarik egitasmo honen aurka inor dagoenik, gizalegeko gauza denez*”.

Bertzalde, Bortzirietako Udalek osatzen duten

eskualdeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzu Mankomunitatearen zuzendatitza uztailearen 18an bilduko da Etxalarren, aipatutako gaia lantzeko, berteak berte.

**Legarbidetako bizilagunei erantzunez**

Erabaki hauekin Legarbidetako 1. karrikako 1. zenbakiko bizilagunei erantzun egin zaie, hauek Berako Udalarari zuzendutako idazkia jaso ondoren. Etxe bereko zortzi dira idazkia sinatu duten bizilagunak, proiektuaz informazioa eskatuz Udalarari.

### Urruñarrak “Sanesteban”etan

Bera eta Urruñan herrien arteko harremanak bere lehen emaitzak gauzatzen ari ditu. Beran egindako hirugarren bileran finkatu dira zenbait ekintza. Horrela, datozen Sanestebanetan urruñarrak Berara etorriko dira Abuztuaren 4ean, igandez, fanfarre batekin; astelehenean berriaz, abuztuak 5, herri bazkarian parte hartuko dute musika talde batez lagundua. Bere aldetik, beratarrek ere berte ekintzak antolatzen ari dituzte, Urruñan garatzeko hurrengo hilabetetan zehar.

**B** RADIO BIDASOA expert  
Kanttonberri 1, Tfnoa: 63 03 77  
**BERA**

**3 urtetarako garantia eta 36 hilabete ordaintzeko.**  
**Nork eskeintzen du gehiago?**

**LESAKA**

**Eguraldi ederra eta giro bikaina aurtengo Sanferminetan**

Nahiz eta larunbatean eman hasiera ofiziala, ortzegunetik bizi izan zen besta giroa

AITOR AROZENA

Eguraldi ederra eta Lesakara hurbildutako jendetza (batez ere, asteburuan) izan dira aurtengo Sanferminetako ezaugarriarik nagusienak. Jendeak ekintza ezberdinetan parte hartu du, umore ederrarekin.

*Ekainaren 6ko eguerdian hasi ziren Sanferminak, txupinazoarekin eta alkatearen "Lesakarrak gora San Fermin" -arekin. HBko zinegotziek ikurriña paratu zuten.*



*Nahiz eta programan sartua ez egon, urteroko bustialdia izan zuten peñak Onin errekan, aurtengoan sekula baino jende gehiagorekin.*

Peñen eguna ere jendetsua suertatu zen. Peñakideen kopuruagatik, aurtengo hirugarren jate txiki bat bilatu behar izan zen jendea sartzeko. Goizeko danborradan peña guztietako kideak hartu zuten parte. Buila ederra!



*Txupinazoaren ondoren, haurren danborrada abiatu zen, trikitilari, txistulari eta soinulariekin batera. San Fermin egunean, dantzak nagusitu ziren. Eguerdian ohizko Zubigainekoa eta arratsaldean, plazako dantzak. Haurrek eta ezkonduak ere izan zuten beraien eguna.*



**MANUEL LANTZ**  
**KONTABILITATEA ETA AHOLKULARITZA FISKALA**  
 Errenta deklarazioak, BEZ edo IVA deklarazioak, Kontabilitateak, e.a.  
**Eztegara 14, 1. - Tfnoa.: 63 11 08 - BERA**

*Deñe*  
**LENTZERIA**  
**MERTZERIA**  
 Tfnoa.: 62 75 14 Beheko Plaza 8, LESAKA

**MERKEALDIAK**

- ✓ Bainu jantziak
- ✓ pijama motzak
- ✓ galtzerdiak, e.a.

**ARRANO**

**OSTATUA**  
 Legarra - LESAKA

**XATURETXEA**  
**FONDA**  
 Tfnoa.: 63 70 27  
**LESAKA**

**BEKO ERROTA**

Lore eta landareak  
 Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26  
**LESAKA**

**«U S O A»**  
**NEKAZARI KOOPERATIBA**

Ganaduarentzat pentsurik egokiena  
 Tfnoa: 63 52 14  
**ETXALAR**

**LORA DENDA**

**TXIRULA**  
 Bittiria LESAKA

Loradenda, bitxikeriak, opariak, eskulangintza

Bittiria, Tfnoa: 62 75 42  
**LESAKA**

**IRUBIDE**  
**OSTATUA**  
**ERRETEGIA**  
 Tfnoa: 637127 LESAKA

## Zabor ontziak garbitzeko tresna berezia

Nafarroako Gobernuak eskeinita, Bortzirriak, Malerreka eta Baztanen erabiliko da

PELLO APEZETXEA

Nafarroako Gobernuak eskainita, karrika eta bide-bazterretako zabor ontziak garbitzeko, tresneria bereziz hornitutako autoa ekarriko dute Bortzirietara. Baina ez da Bortzirietarako bakarrik izanen, Malerreka eta Baztango ontzien garbiketa ere berak burutuko baitu.

### Arazkailu edo depuradoraren zainketa

Herriko saneamendu lanak bukatzean, ur zikinen arazkailu edo depuradora funtzionatzen hasi zela ikusi genuen, errekarararak garbituak itzultzeko. Eguneroko Joxe Anjel etxetxora joaten zela ere bagenekien, baina zertara garbi jakin

gabe. Etxetako zikinak bakteriak edo mamurru tiki batzuk jaten dituzte. Aintzinetik, ordea, ur zikinak bi sare pasa behar ditu, urak eramaten dituen bertzelako oztopogarrak geldiarazteko, belarrak, hostoak, etxetan botatzen diren leka azalak eta antzekoak. Sarean gelditzean, ordea, sarearen urbidea ere ixten dute, horixe delarik eguneroko eginbeharrekoa: sareak garbitu. Ur zikinaren «muestra» ere eguneroko hartu behar du, ea bakteriek jateko zikin aski ote duten ikusteko. Argi indarrak mugitzen denez, bakteriat oxigenatzeko, indar hori ongi dabilen edo ez begiratzea da bertze egin-kizuna.



Joxe Angel

## IGANTZI

### Lehendabiziko udal bilkura

OSKAR TXOPERENA

Benetan mamitsua izandu zen zinegotzi berrien lehendabiziko bilera. Beraz, gai guztiak aipatuko ditugu gutti baitira eta guztiak garrantzi handikoak.

#### Udal bilkurak zenbatetik egitea

Erabakia hilabeteko lehendabiziko asteartetan

egitea erabaki zuten, beraz, hilean behin.

#### Komisioen osatzea

Ahobatez horrela onartu ziren komisioak.

**Hazienda:** Zinegotzi guztiak.

**Hirigintza eta obra publikoak:** Seberino Retegi lehendakaria eta partaideak Iñaki Hita, Jose M<sup>a</sup> Sainz eta Mikel Retegi.

**Osasun publikoa eta ingurugiroa:** Mikel Retegi lehendakaria eta Beatriz Migelena, Jose M<sup>a</sup> Sainz eta Severino Retegi.

**Mendiak, Nekazaritza eta abelzantza:** Lehendakaria, Juan Jose Txoperena, Lander Sein eta Jose M<sup>a</sup> Sainz.

**Hezkuntza, kultura eta kirolak:** Lander Sein,

Beatriz Migelena, Iñaki Hita eta Mikel Retegi.

#### Mankomunitate eta erakundetako ordezkariak

**Hiri-hondakinen Mankomunitatea eta Zerbitzu Sozialeko ordezkaria:** Jose M<sup>a</sup> Sainz,



(bertze aldean segitzen du)

**Euskara Mankomunitatean:** Mikel Retegi. **Osasun Kontseiluan:** Juanjo Txoperena. **Eskola Kontseiluan:** Beatriz Migelena, eta **Kirol Kontseiluan,** Iñaki Hita.

## Alkateordeen izendatzea

Lehenengoa, Severino Retegi izanen da eta bigarrena Mikel Retegi.

Beraz, badakizue norengana jo zuen arazoekin.

## Bestetako zenbait aipamen

Dagoeneko jakina da zein musika talde izanen ditugun bestetan: Gaubela, Minxoriak, Egan eta Arkaitz. Honetaz aparte aipagarria da besten programaren barruan betizuak izanen ditugula eta aspaldiko partez punta puntako bertsolari laukote bat izanen da baita ere.

Emanen dugu berri gehiago.



## ARANTZA

### ETB hobe ikusteko bertze antena jarriko da

JON LARRETxea

Lehenengoarekin zenbait lekutan ETB nahiko gaizki ikusten zenez, Azkilarrea auzoan batez ere, Udalak, antena berria jartzea erabaki du Otsarrako bizkarrean. Berehala hastekotan dira lanak eta itxura denez, laster herri guzian ongi aski ikusterik izanen dugu ETBren programazioa.

### Komunalak aztertzen

Dagoeneko hasiak dira Diputaziotik etorritako bi langile lur-komunalen auzia aztertzen. Argi ez



dauden lurrei buruz informazio guzia bildu, aztertu, lur horietaz eman diren baimenak-aprobetxamen-

duak aztertu eta guzi hori egin ondoren, txosten edo informea egingen da. Informea hauekin, partikularrari

berri emanen zaio, posible izanez gero, akordio batera iristeko. Beti ere lanaren arabera izanen bada ere, badirudi udazkenerako informea osatuak egonen direla.

### Eskoletako txikizioa

Lehenengo egunean bakarren bati dibertsio polita gogoratu zitzaion: eskoletara joan eta bi ate txikitu, alajaina!. Sano ibiliko ote da holako gauzak egiten dituen? ez da ulertzeko erraxa behintzat! Hala ere, barnean ez zen deus falta ezta kalterik somatu ere.

Zure publizitatea 4.600  
etxetara zabaldu nahi  
baduzu, deitu 631188ra

**ttipi-ttapa**  
HAMABOSTEKARIA

**ATERPE**  
**jatetxea**

Mendi ibilaldietarako Mountain bike bizikletak  
alokatzen ditugu  
Tfnoa.: 63 41 79 - ARANTZA

**PABLO-ENEA**

Jatetxea

Tfnoa: 63 40 77

**ARANTZA**

## Legealdi honetako lehen Udal Biltzarra burutu zen

Bertan komisio desberdinak banatu ziren

TXEMA ALDABE

Joan den Ekainaren 26an burutu zen Herriko Etxean legealdi berri honetako lehen osoko bilkura edo plenoa. Bertan hurrengo lau urtetarako komisioen banaketa eta organu kolegiatueterako ordezkariak aukeratu ziren, talde desberdinen proporzionaltasuna gordez.

### Komisioak

**Mendiak:** Victor Mendiburu Martin (EA).

**Ur eta argiteria:** Martin Arretxea Belarra (EA).

**Hezkuntza eta Kultura:** M<sup>a</sup> Jesus Perurena Santesteban (EA).

**Hirigintza:** Victor Mendiburu Martin (EA).

**Kirolak, bestak eta zinema:** Antonio Artazkoz Goñi (U. Doneztebearra).

**Industria eta Turismoa:** Jose Ignacio Zabala



*Bederatzi komisio izanen diren legealdi honetan*

Gonzalez (U. Doneztebearra).

**Gizarte ongizatea:** Antonio Apeztegia Lanaspá (U. Doneztebearra).

**Udal administrazio eta kontuak:** Honorio Taberna Vera (Donezteben Alde).

**Osasuna eta Zaborrak:** Tomas Ezkurra Zunzarren (Donezteben Alde).

Bertzalde, Bidasoa eta Berroaraneko Mendietako juntaren administratzaile titularra EAKo Miguel Irigoien Jorajuria izanen da.

### Malerrekako Euskara Zerbitzua bildu zen

Ekainaren 27an bildu ziren Doneztebeko udal-etxean Doneztebe, Zubieta, Bertizarana, Donamaria, Oitz, Elgorriaga, Ituren,

Urrotz eta Sunbillako ordezkariak, beraz, inoiz baino partaide gehiago.

Bilera horretan Euskara zerbitzuaren berri eman zen. Aipagarria da 1990-91 ikasturtean, udaletako 12 langile eta osasun zentruko 14 langile euskalduntze-alfabetatze kanpainan aritu direla.

Bertan bildu ziren guztiak. "Mankomunitateko Euskara Batzordearen" beharra azpimarratu zuten, alde batetik oinarriko legitimitatea izateko eta Mankomunitate bezala euskararen normalizazio prozesurako hainbat erabaki hartu ahal izateko eta bertzetik 13 udalerrien arteko koordinazioa eramateko.

Zerbitzuaren azpiegiturako 1991ko aurrekontuaren berri eman zen ere, herri bakoitzari dagokion diru kopurua adieraziz.

## Aditu Baten Ziurtasuna

LAGUN AROn honako hauetan gara adituak:

- Industri Aseguru Konbinatuan
- Bizitza Aseguruetan
- Eraikuntzako Arrisku Orotariko Aseguruan
- Etxe Aseguru Integralean
- Komertzio Aseguru Integralean

**LAGUN ARO ASEGURUAK. Konpainia on baten balioa.**



Carlos III.a Etorbidea, 14  
Tfnua.: 22 56 66 Fax: 22 10 49  
31002 IRUNA-PAMPLONA

Ostatua, San Juan z/g  
Tfnua.: 61 51 19  
31747 SALDIAS

Juan Jose Urrutia Juanenea  
(Ajentea)

**ELGORRIAGA**

**Elgorriagako bestak heldu den asteburuan**

I. OLAZAR

**Azteazkena 24:**

**Arratsaldeko 8etan** altxaferua eta ezkil algara besteei hasiera emateko; ondotik malerrekako zopa izanen da herriko ostatuetan; **gaueko 12,30etan** dantzaldia GAUBELA taldearekin; **goizeko 2etan** Jean Michel BEDEXAGAR-en kantaldia.

**Ortzeguna 25:**

**Santiago Eguna**  
**Goizeko 11etan** Meza Nagusia; **eguerdiko 12etan** Iturengo Dantzariak; **arratsalde**z trikitixak eta **arratsalde eta gauez** dantzaldia GAUBELA taldearekin.

**Ortzirala 26:**

**Goizeko 11etan** Jokoak; **10etan** Plater Tiraketa; **arratsaldeko 5etan** antzerkia; **gaueko 10etan** zinea ilargipean; **arratsalde eta gauez** dantzaldia MODESTOrekin.

**Larunbata 27:**

**Goizeko 10etan** kotxe "teledirigituak"; **arratsaldeko 5etan** Mus Txapelketa; **arratsalde eta gauez** dantzaldia GAUBELA taldearekin; **gaueko 2etan** ERRAMUN MARTIKORENAREN kantaldia.

**Igandea 28:**

**Eguerdiko 12etan** Toka Txapelketa; **eguerdiko 2etan** Zikiro Jatea bertsolariekin; **arratsalde eta gauez** dantzaldia GAUBELA taldearekin.



Fco. Martin Aiestaran

**BURDIN-LAN ARTISTIKOA**

450235 - ELGORRIAGA

**ELGORRIAGAKO FONDA**

**Espezialitatea arrain eta bildotsan**

TELEFONOA: 45 00 03 - ELGORRIAGA

**BORTZIRI**

Itzea 4, behea - BERA

Tfnoa: 63 10 91

- \* Asistentzia teknikoaren zerbitzua
- \* T.B., Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa
- \* Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu

## Leurtzako katea martxan paratu da udari begira

TXEMA URROTZ

Uda iritsi denean jarri da martxan urtegieta kateen pasua erregulatzen duen katea eta honekin batera komunak eta dutxak. Lan hauek egiteko pertsona bat hautatzen da, urte batean Urrotzkoa eta bertzean Labaiengoa, txandatu.

Aurtengorako Urrotzarrak tokatzen da eta Joxe Mari Iribarren izan da aukeratua lan honetan aritzeko.

### Nortasun agiriak eskatzen

Aipatzekoa da Guardia zibilak ere egin duela berektariorik joandako egunetan, zenbait jendeei nortasun agiria eskatuz eta abar.



tasun agiria eskatuz eta abar.

Ez da leku eder hau ere guardia zibilaren kontrolatuz libratzen.

### Errepidea moldatzen

Moldatutako kurbak oraindik ez zirela enbreatuko zurrumurrua bazebi-

len ere, hasiak dira eta Urrotzeraino iritsiak ere. Hala ere karretera guziaz enbreatzeko oraindik esperatu egin beharko dugu.

*Zure gustoko arropak*

*Arroparen*

**ARROPAK**

San Migel auzoa 27,  
45 08 83 - DONEZTEBE

**ARROPA ETA OPARI DENDA**

**XIMELETA**

Tfnoa: 451540  
Mercaderes 9  
DONEZTEBE

**Nerea**

*Oinetakoak*

San Migel 2, DONEZTEBE



**Galeria Komertzialak, Colon Pasealekua 31, IRUN**

ILEA ONGI ZAINTEKO  
HOBEBI EZAGUTU  
BEHAR DA

**FLOREN**

**ILEAPAINDEGIA**

Kosmetologi  
kabinetearen helbide  
berria hauxe da:

**Tfnoa: (943) 619278**

ITUREN

Lehen Udal bilera

Hilaren 19, 20, 21 eta 22an ospatuko dira herriko besta

IBAN ISASI

Lehen bilera ekainaren 29an ospatu zen eta tratatu ziren puntuetako batzuk honako hauek izan ziren: Egoera ekonomikoa, familia bakarreko bi etxebizitzien eraiketa eta alkateordearen izendapena, Jose Angel Alloroa izendatu.

Makilipurdiren egoerari buruz ere hitzegin zen eta aditzera eman paralizatua zegoela subasta eta honen ordeztu berte bi pinadi subastatzea estudioan omen dago.

Tratatutako bertze puntua, defenza ministeritzetik bidalitako gutunarena izan zen. Horretan, orain dela hilabete batzuk intsu-



misioaren alde hartutako akordioa atzera bota edo errebokatzea eskatzen da. EAren bortsu boteoz atzera bota zen oraingoan aurretik zegoen akordioa eta HB zein TBkoek aurka botatu

zuten.

Komisiorik gabeko udala izanen dela ere erran zuen alkateak. Eskeintea egin zion HBkoari aferaren batetan interesatuta balego errateko. Bertzeak,

(TBkoak), era pasiboan hartuko du oraingo udal gestioa. Bilera arruntak hilabetero izanen dira.

**Bestak 19, 20, 21 eta 22an**

Dagoeneko bestak gainean ditugu. Hori behintzat argi dago gazte eta ez hain gazteen artean. Ortzirala hontatik hasita hurrengo astelehena arte izango dira bestak. (Oraindik kronika hau idazteko orduan ez geneukan lortua besten egitaraua). Dena dela, jende aunitz dago dagoeneko, zenbat gaupasa edo zenbat lo ordu izanen dituen pentsatzen (ea nor ailegatzen den azken egunera lorik egin gabe!).

**ITURENGO ZURGINDEGIÀ**

TELEFONOA: 45 03 27 - ITUREN

**TXOKO ERRETEGIA**

*Bazkari, afari eta gosariak*

ITUREN

Tfnoa.: 45 04 91

**HERRIKO OSTATUA**

Tfnoa.: 45 03 25

ITUREN

**MENDAUR OSTATUA**

**Besta ederrak pasa**

45 05 73 - ITUREN

**Bestak Ongi pasatu**

**AURTIZKO OSTATUA**

45 04 77 - ITUREN

*ttipi-ttapa*

HAMABOSTEKARIA

*Besta eta parranda!*





ZALDUA

## ELIZONDO

Uztailak 24, 25, 26, 27, 28 eta 29an

### Asteazkena 24:

**12etan** Herriko Plazan, herriko alka-teak, beste hasiera emanez lehenbizi-ko su-ziria piztuko du. Ondotik, erraldoi eta buruhandiak txistulari eta gaiteroekin batera Jaime Urrutia, Braulio Iriarte eta Santiago karriketan barrena ibiliko dira; **5etan** Herriko kuadrilen artean Jinkana antolatuko da; **7etan** Mus Txapelketa Labaien, Gloria, Saioa eta Sobrino ostatueta. **7,30etan** Victorio Mena Sanciñena eta Felix Mena Martin argazkilarien erakusketa izanen da Kultur Etxean. Horrekin batera, aurtengo kartel txapelketan aurkeztu direnen kartelak erakutsiko dira; **8etan** Elizondoko Parrokian urteroko Salbea eta Ere-



## Galarza

JATETXEA

Tfnoa.: 580101 – Santiago 1 – ELIZONDO

## Eskisaroi Jatetxea

Jaime Urrutia karrika – Tfnoa.: 580013 – ELIZONDO



## CRISTALERIA VELATE

TRUGLASS

- ✓ Eraikuntzak kristalezatzea
- ✓ Instalazio komertzialak
- ✓ Climalit beira edo kristal isolatzailea (aislantea)
- ✓ Seguritate lunak
- ✓ Kristalera artistikoak
- ✓ Mural ispiluak
- ✓ Grabatuak
- ✓ Etxe barneko dekorazioa
- ✓ Oparitzeko artikulua

ELIZONDON, Pedro Axular karrika, 1 – Tfnoa: 58 08 25

DONEZTEBEN, Merkaderes karrika, 5 – Tfnoa: 45 09 91

serkia, herriko koralak kantatuko du, Juan Erasok zuzendurik. Herriko agintariek erraldoi, buruhaundi, txistulari eta gaiteroekin batera, Meza entzutera joanen dira; **Gaueko 1etan** Dantzaldia Herriko Plazan AKELARRE taldearekin.

**Ortzeguna 25:**

**Santiago Eguna**

**9etan** Argi-soinua; **11,30etan** Meza Nagusia Elizondoko Koralak kantaturik; **12,30etan** Elizondoko Erraldoiak lehenbiziko aldiz agertuko zaizkigu dantzariak bezala. Ondotik Mutil-Dantzak eta gaita. Akitzerakoan hameka-

ZALDUA



**B. ALMANDOZ  
OINETAKOAK**



Oinetakoen salmenta  
eta konponketa  
Santiago 47, TF:58 03 87  
ELIZONDO

**KASINO  
OSTATUA**

**Besta on batzuk pasa**

Jaime Urrutia 10  
ELIZONDO

**IZETA  
ANAIK**

Erloju eta  
bitxi denda

Jaime Urrutia 17  
Tfnoa:58 07 55  
ELIZONDO

**JAVIER  
ELEKTROGAILUAK**

**TB • Bideoa • Soinua  
SALMENTA ETA  
KONPONKETA**

Saskaitz Plaza  
Tfnoa:58 0461  
ELIZONDO



Ezkontzetako erreportaiak  
argazkiak eta bideoa

Tfnoa.: 58 01 55  
Santiago 40  
ELIZONDO

Eta orain, zure koloretako argazkiak  
**ORDU BATEZ ERREBELATUAK** ditugu

**BAI - ONA**

**SUPERMERKATUA**

Tfnoa: 58 04 53  
ELIZONDO



takoa; **6etan** Baztan Pilo-  
talekuan Herri Kirolak;  
**6etan** Saskaitz Plazan BI-  
HAR txontxongilo taldea  
aritu da; **10,30etan** Mutil  
-Dantzak eta Gaita; **Arra-  
tsalde eta gaez** dantzal-  
dia Herriko Plazan LOS  
CLAN taldearekin.

**Ortizirala 26:**

**9etan** Argi-soinua; **11etan**  
Erraldoi eta Buruhaundiak  
txistulari eta gaiteroekin  
batera, Aldudeko Etorbi-  
dea, Santiago, Gotzain  
Berekoetxea, Amaiurko  
Gaztelua, Santiago, Jaime  
Urrutia karriketan barrena ;  
**12,30etan** Sokamuturra  
Txokoton; **5etan** Herriko

## ELKAR

AUTO ESKOLA

ELIZONDO 58 00 77

LESAKA 63 78 70

## Beatriz Lurrindenda

Garantia osoko produktuak  
aurkituko dituzu

Perfumeak, Kosmetikoak, Bitxiak, Poltsoak, Oparitzeko artikulua

Santiago 53, Tfnoa: 58 02 83 - ELIZONDO

## ZUENDAKO

## MOBLEAK

Erakusketa eta  
salmenta

Jaime Urrutia 33

Tfnoa: 58 02 02

ELIZONDO

## ZUNZARREN

Gestoria

• Alliaz Ras  
Aseguruak

• Bidai Agentzia

Tfnoa: 45 22 93

Amaiur Gaztelua 2

31700 ELIZONDO

## MANGADO Y OCHOA

- Zeramikak
- Bainuak
- Osagarriak

Santiago 56B, Tfnoa: 58 12 84 - ELIZONDO

## FZ

FOTO ZALDUA

Argazkiak, Bideoa, Markoak

Eskura ezazu uda hontan  
kamiseta sosik ordaindu  
gabe zure argazki  
karreteak errebelatuz

Elizondo Tf: 58 04 91

Doneztebe Tf: 45 03 64

Tfnoa: 58 08 98



**JUAN LARREGI**  
NEKAZAL TRESNERIA

ELIZONDO

ALFA SEGAMAKINA BAT

EROSTEAGATIK ZURE

**SEGAMAKINA ZAHARRA**

**BERRI BATEZ ALDATUKO DIZUGU**

ETA PREZIO ONEAN

ORDAINDUKO DIZUGU ZEUREA

**KOTXE ETA FURGONETA ZIRRIKA EDO**

**GURPILAK MERKE MERKEAK**

ZIRRIKA JAPONIARRAK

LAU ERAMAN ETA BI ORDAINDU

VICON MARKAKO

ABONO-BANATZAILE ETA

BELARRA MOZTEKO DISKOAK

**HOBERENAK DIRA!!**

SOROAK GARBI-GARBIAK ZAITZEKO

EROSAZU

**DESBROZADORA BAT**

LARRAK, IRATZEAK, BELARRA,

OTEAK... ARBOLAK KIMATU

ETA GUZI EGITEN AHAL IZANEN DUZU



Elizondoko Bestak

MENA Argazkia

Guretzat hain bereziak diren egun hauetan,  
herrikideen alaitasunarekin bat egiten dugu

**Besta Zoriontsuak!**

**GANI**

**NAFARROAKO AURREZKI KUTXA**



ONDIKOL

Plazako kioskoan Mus Txapelketa-  
ren finalak; **6etan** Pilota partiduak  
Baztan Pilotalekuan; **6etan** Herriko  
Plazan BIHAR txontxongilo taldea  
arituko da; **10,30etan** Mutil-Dantzak  
eta Gaita. Segidan herriko txarangak  
karrikak alaituko ditu; **Arratsalde eta  
guez** Dantzaldia IZADI taldearekin.  
**Larunbata 27**

**9etan** Argi-Soinua; **10,30etan** Eli-  
zondo eta Zangotzako Erraldoiak Gil-  
txaurdi, Pedro Axular, Menditurri,  
Braulio Iriarte, Mendinueta eta San-  
tiago karrketan barrena ibiliko  
dira; **12,30etan** Soka-Muturra Txoko-  
ton; **5etan** Eskolarteko Txirrindula  
Txapelketa; **6etan** Herriko Plazan Le-  
sakako Irain Dantza Taldea arituko  
da; **8etan** Merkatuko Plazako Arku-  
petan, haurrentzat txokolatea, 'japo-  
niar bonbak' eta antzerkia; **10,30etan**  
Mutil-Dantzak eta Gaita; **11etan** txar-  
ranga ibiliko da karrikaz karrika;  
**Arratsalde eta guez** dantzaldia,  
DRINDOTS taldearekin.

## IZOZTUEN ETXEA

❄️ **JANARI** ❄️

### IZOZTUA

**OTXEA S.L.**

**BILTEGI FRIGORIFIKOEKIN**

Santiago 38  
Tfnoa: 45 21 65  
ELIZONDO

## SANTXOTENA JATETXEA

Pedro Axular, Tfnoa: 58 02 97 - ELIZONDO

## SAIOA OSTATUA


**PINTXOAK, BOKADILLOAK  
MUSIKA ONA ETA BIDEOAK PANTAILA HAUNDIAN**

Santiago 68, Tfnoa: 58 01 04 - ELIZONDO

**Igandea 28:**

**9,30etan** Baztango Itzulia Txirrindula Lasterketa afizionatu mailan; **11etan** Erraldoi eta Buruhaundiak Santiago, Mendinueta, Jaime Urrutia karrketan; **12,30etan** Laxo partidua Erreboteko Plazan; **12,30etan** Sokamuturra Txokoton; **5etan** Aldudeko Klika eta dantzariak karrketan ibiliko dira. Ondotik, herriko plazan; **10,30etan** Mutil-Dantzak, Gaita eta Txaranga karrketan; **Arratsalde eta gauetz** dantzaldia EGAN taldearekin.

ZALDUA



Oinetakoen konponketa garantizatua!

**VIRGILIO**  
Oinetakoak

1922 fundatutako etxea  
Santiago, 32  
Tfnoak.: 58 02 02 - 58 02 79  
ELIZONDO

**IPINGI**

Besta ederrak pasa!!

MERKEALDIAK TELETAN


ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939  
ELIZONDO

**Datucelay**

Tfnoa: 58 02 25 - ELIZONDO





ZALDUA

**Astelehena 29:**

**9etan** Argi-Soinua; **10etan** Urteroko txapelketa Igerilekuan; **11etan** Erraldoi eta Buruhaundiak Santiago, Amaiurko Gaztelua; Diputazio etorbidea, Akullegi, Saskaitz Plaza eta Jaime Urrutia karriketan ibiliko dira; **12,30etan** Sokamuturra Txokoton; **2,30etan** Zikiro Jatea; **6etan** Modesto akordeoilaria Xaharren Erresidentzian; **10,30etan** Mutil-Dantzak eta Gaita; **Arratsalde eta gauz** dantzaldia JATOR taldearekin.



**AMEZTI**  
Ostatua

*Bestak  
onzi  
para!*

Santiago karrika, Tfnoa:  
58 04 04 - ELIZONDO

# Almaco Baztan, S.A.



Eraikuntza eta saneamendu materialeak

Errepide Nagusia, Tfnoa.: 58 01 04 - ELIZONDO

# LEIZA

Elektrogailuak  
MASTER KATEA

**PHILIPS THOMSON ITT SONY PANASONIC SELECO SHARP**  
**SANYO ELBE TECKNICS BLAUPUNT FAGOR ZANUSSI ZANELA**  
**BOSCH BALAY INDESIT AEG OLIVETTI MOULINEX**

Santiago 27, Tfnoa: 58 03 51 - ELIZONDO



ONDIKOL



# BAZTAN

## ALTZARIAK

zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak:
  - Luis XV - Regence
  - Luis Felipe
  - Napoleon
  - Haritz eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. kma, Tfnoa: 45 23 74  
IRURITA - BAZTAN





## Eguraldiak ez du belarretarako eta turismorako laguntzen

Hala ere, amerikanoak, ingelesak eta japonesak ere etorriko zaizkigu Baztanera

JOSEBA I.

Beti bezala eguraldia dugu berririk aipatuena Baztan aldean. Belar aunitz belaietan eta eguraldiak ez du behar adina laguntzen hau idortzeko. Turismoan ere izan du eraginik eguraldiak. Izan ere, bertze urtetan baino mugimendu gutiago somatzen da aurtengoan. Bestetarako ez du halere hainbertze inporta kanpotik bustita ere, baretik beti bustiak joaten bait gara. Azpilkue-tako bestak joan ziren eta orain Elizondokoen zai gaude. Bitartean Baztan-darren Biltzarra dugu uz-tailaren 20 eta 21ean. (Egitarauaren xehetasunak 5. orrialdean ikusiko ditu-zu). Dena dela aipagarriak dira 21ean egiten den orga-apainduen desfilea eta bezperako gau-pasa.

### Istripuak


Arrazoi ez ezagunen-gatik, Erratzuar gazte batek larriki zauritu zuen bere burua uztailaren 8an. Aipatzeko modukoa da, egunkari batetan agertu zen informazio okerra xehetasunei dagokionez batez ere.

### Udako Kultur egutegia

Antolatzen ari dira da-goenekoz udako kultur egutegia, horretarako



Belar aunitz dago belaietan baina eguraldiak ez du behar adina laguntzen belarrak idortzerakoan.



Gorramendiko bizkarretan badute non bazkatu bertara hurbiltzen diren putreak, saiak eta arranoak.

500.000 pztatako aurre-kontua onartua dutelarik.

### Funtzionarioendako euskara ikastaroak

Irailatik aintzineria eta 11 hilabetez, egunean ordu bateko klaseak antolatuta dira Udal langile, albaite-ro, mediku, erizain eta abarrentzat... administra-zioak ordaindua.

### BUPEko tresneria

Oronotz-Mugaireko ikastetxean zegoen tresneria Lekarozko ikastetxean erabiltzeko uztea erabaki zuen Udalbatzak UBren kontrako botoekin.

### Zozaiako ura

Berriki onartua izan da Lizarregiko iturritik ura eramatea Zozaiako etxee-

tara. Afera honek azkeneko urteotan mugiarazi egin ditu Zozaiarrak, udan batez ere, ura zisternetan garraiatu beharrean aurkitu baitira.

### Ikastolako eskolaurrea

Eskolaurreko maila legalizatzea eskatu du berriki udalak ahobatez eta horretarako beharrezko pausuak ematen hasiak dira honez gero.

### Kirol Patronatua

Kulturako zinegotzia eta Kirol taldeen artean izandako bileraren arabera, Patronatua eta egoitza sortzea proposatu zuten Kirol taldeek.

### Iruritako pilotalekua

Diru laguntzarik gabe hasitako pilotalekuaren obrak ez dira geldituko. Arrazoiak: geldituz gero kontratistari %20a ordaindu beharko litzaiokeela. Dena den, diru laguntza lortu nahi da eta horretarako bilerak hasi dituzte Nafarroako Gobernuarekin.

### Oporrak

Batzuk Baztandik joaten diren bitartean, bertze zenbaiten bisita hartzen dugu Ameriketatik, Lekarotz aldean batez ere. Zigarra berriz, ingelesak eta japoniarrak etorri dira.

URDAZUBI

Itziar eta Roxa bigarren, Dantxariko pala txapelketan

ALIZIA OLAIZOLA

Finala Dantxarinako Ur-hegian jokatu zuten ekainaren 28an, Zuraitar nesken aurka. Gatazka aunitz ibili zuten bi bikote hauek hagitz ongi jokaturik eta azkenean zuraitarrak txapeldun geratu ziren. Ea hurrengoan txapela lortzen duten. Partiduaren ondotik jokalaria Ur-Hegia jate-txean afaldu zuten. Alege-ratuak zirenean, Itziar eta Arroxa umore ederrean San Pedroak ospatzera joan ziren Erratzura.

• **Uztailaren** lehenean Aitor Etxarteren bataioa izan zen. Bainan ez zen Urdazubin bataiatua izan, Zugarramurdin baizik.

**Arkeologoak Berraberriko lezean**

Urdazubin baditugu Leorlas auzoan aitzulo batzuk eta Alkerdi auzoan lezeak. Leze ttiki hauen jabeak, Berraberrikoak dira

eta orain dela urte batzuk hasiak dira hauek aztertzen arkeologoak, hamar bat neska mutil etorritu urtero Uztailean. Arkeologo hauek Indiano Baitan ostetzen dira, neskek arrunt maitatu dute Urdazubi eta bestaz besta ibiltzen dira hemengo mutilekin.

**Belarretan**

Hemengo laborariak ere belarretan ari dira ahal duten bezala bukatzen zentaz ez du hainbertze berotzen. Urdazubin belar aunitz idortzen da eta zanja edo siloan sartu ere bai.

**Sanferminak**

Aurten ere giro ederrean pasatu dituzte Sanferminak herriko gazteek. Gauz juerga aunitzekin eta biharramenez kuluxka pittat eginez ahal zuten tokian. Joan den urtean bezala Amaia eta Felix Lesakan egon dira bestak pasatuz kanpaina denda batean.



Urdazubi nesken pala txapeldunordeak: Itziar eta Roxa



Urdazubiko gazteak biziki animatuak Iruñeko Sanferminetan

**ERRATZU OKINDEGIA**  
zure eguneroko ogia  
453168 - ERRATZU

Nafarrorako egile ofiziala:  
**ONENA Tailerrak**  
Zaldubia Poligonoa, IRURITA (BAZTAN)  
**deceuninck**  
Behar duzuna, PVCn • Tfnoa: 580532



Etxetik mugitu gabe ardoa erosi nahi baduzu  
• Botilatu eta botilatu gabea  
• Markako ardoa...  
deitu 45 32 66 Tfnoa.  
**AZPILKUETA**

Zure publizitatea 4.600 etxetara zabaldu nahi baduzu, deitu 631188ra  
**ttipi-ttapa**  
HAMABOSTEKARIA

**MENDIALDE Jatetxea**  
Etxeko gasnak saltzen ditugu  
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan  
**AMAIUR Tfnoa: 45 30 00**



**OSKORRI LIBURUDENDA**  
Petriena Tfnoa.: 592245  
ORONOTZ-MUGAIRE

## Hiru mila lagun baino gehiago Akelarre gau-pasan

KORO ETA MARGARI

Pasa den ekainaren 22an ospatu zen eta azken urteotan bezala aurten ere jende pila juntatu ginen besta egiteko (3.000 lagun pasatuak, sarrera ordaindu zutenak behinpein).

Eguraldiak ere ederki lagundu zuen, edozein bestetan txarra bada euri egitea, makurragoa da oraindik besta hori gauaz, mendian eta oinez gan behar den toki batean egiten bada (orain arte, azken berderatzi urte hauetan suertea izan dugu, ikusiko dugu noiz arte).

Orain ikusi beharko da zertan gelditzen diren gau huntako kontuak eta zer

laguntza ematen duten herriko ostatuek, heldu den urterakoz berriz ere lanak hartzeko animoekin ote dauden (edo aldrebes bertzela).

### Lapurrak ere ailegatu zaizkigu herrira

Herri ttiki hauetan bizi garenak uste dugu hemen ez direla halakorik gertatzen, uste dugu herri haundi haundietako eta periodikoetan agertzen diren aferak direla, baina bixtan dago ez dela horrela: gure herrirat ere ailegatu dira lapurrak.

Gan den astean sartu egin ziren etxe batean eta berenak egin zituzten.



Lapurra ikusia eta guzi izan zen: mutiko gazte beltzaran bat, kotxe granate supermirafiore NA-L batetan etorria zena, baina hala ere ez zen posible izan harrapatzea.

Badakigu ere Dantxarriean ibiliak direla, Saran ere bi tokitan, Irurita, Igantzi, Lesakan...

Loteria ez zaigu tokatuko, baina halakoak bai.

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barranean edo ate ondoan eta buruko mine maten baduzue hek ikusteak, abiso emanazue Iruritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.



«ZALDUBI»  
SUKALDE  
MOBLEAK

Altzari fabrikazioa eta  
muntaia

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 45 20 77  
IRURITA - BAZTAN

Zorionak!

OLHAIN ELKARTEA

Ikasketurte hau bukatu zauku eta askorentzat biziki ongi. Azterketak lotu dituztenen zerrenda luzea bada ere, merezi dute karia huntarat haur-gazte horiek goraiatzea. Huna sail bakoitzean egin banaketa. **BEPC, lehen Bigarren mailako etsamina:**

Laurence Gerard, Emmanuel Da Rocha, Sonia Duhalde, Michel Chaparteguy, Kattin eta Martine Guerendiain, Sophie Hauciarce, Eurne Olasso.

**BAC edo "Baxoa", Bigarren mailako etsamin nagusia:**

A<sub>1</sub> sailean, Laurence Jorajuria.

B sailean, Patricia Sahastume.

C sailean, Sébastien Fagoaga, Maitena Millet.

A<sub>3</sub> sailean Musika, Panpi Gerard.

G<sub>2</sub> kontabilitate sailean, Marie Hélène Bernet, Isabelle Hiriart.



G<sub>1</sub> idazkaritza sailean, Sophie Elizalde.

F<sub>1</sub> teknologia sailean, Jean Marie Pradère.

F<sub>8</sub> sailean, Pasc. Jorajuria.

**BEP mekaniko:**

Manu Endara.

**BTS "Action Commerciale":**

Arantxa Hirigoyen.

**Euskarazko ikasketen DEUG-a:**

Jacqueline Aranburu.

**Maitrese "Sciences Economiques":**

Manu Fagoaga.

**Maitrise Histoire:**

Manu Urrutia.

**BTS Maintenance:**

Christian Aduriz.

**CAP Administration et Commercial:**

Martine Goyetche.

**BEP Comptabilité:**

Odile Ayez.

**CAP Comptabilité:**

Michele Zunda.

**Licence LEA Anglais-Allemand:**

Bruno Mariluz.

**Mention Complémentaire du CAP employée de Pharmacie:**

Sophie Aguirre.

**Hats berri bat pilotarentzat**

Joan den larunbatean bildu ziren arduradunak eta pilotari ohi asko. Bilkura horren ondorioz bulegoa erreberitua izanda. Hauek dira beraz oraiko buruzagi eta partaideak.

**Sarako Izarra Pilota:**

**Arduradunak:** Lehendakari Mattin Arrieta, laguntzaile Thibault, diruzaina Josef Olhats eta idazkaria Pigeon.

**Pardaideak:** Esku uska saileko, Pancho Berecoetchea, Daniel Mariluz, Mattin Tapia, Jean Michel Arizcorreta, Jean Michel Elizalde.

Luzean, Pasako eta Joko Garbiko, Mattin Jorajuria, Philippe Calvet, Peio Bonefons, Koxe Oronoz.

Pala Anchoko, Pepito Mestelan eta Jean Baptiste Lamothe.

**HERRIKO ETXKO EDANTEGIA**

*Michel Guerendiain*

**SARA - LAPURDI**

*ttipi-ttapa*

**HAMABOSTEKARIA**

Tfnoa: 63 11 88

**LUR APAL**

**MEKANOTERAPIA ZENTROA**

**BIZKARRA  
ARTRITISA  
ZAINAK  
STRESA**

Plaza Zaharra 7, Tfnoa: **637011 LESAKA**

**Masaia eta bizkortze ariketak**

**Txomin Irazoki (Fisioterapeuta)**

Astelehenetik ortziralera, 15,30etatik 19,30etara

Eztegara 24, Tfnoa: 63 13 91 - **BERA**

## Aurrera-futbolaren arduradunek beren karguak uzteko gogoaz azaldu dute



Futbol zelaia bikaina du Aurrerak. Zaindu egin behar (Antton)



Asketa txikia

(Antton)

ANTTON ERKIZIA

Iñaki Salbarredi "Zili", Joxemari Razkin eta Joakin Vicente "Titin", Aurrera-futbol saileko arduradun direnak, beren karguak uzteko gogoaz adierazi zuten, orain berriki egindako batzarran. Urte asko daramazkite hortan jotake, laguntza gutxi jaso dutela diote, "interesa ez eta es-

kertxarra gehienetan", eta norbaitek hartuko balu, beraiek atzean lan egiteko hitza eman zuten. Nekatutak orain daudenak, eta jende berririk inork nahi ez, batzarrera ere lau katu azaldu ziren. Arrak jota bezala dago futbol mundua herrian. "Pena da gero! Zailena egina dago, futbol zelai eder bat badugu, bere

kategorian Naparroan ikus daitekeen hoberena behar bada. Bi ekipo osatu ditugu, gazte talde onak gainera. Baina inork lanerako konpromisurik ez du nahi, aurrean jarri eta segitzeko zama hori. Dena besteak egitea nahi dugu. Pena da gero!" adierazten zuten.

Joan den denboraldian, ekonomi arloan urte on bat

egin dutela zioten, eta kontutak zehatz mehatz azaldu zituzten. Futbolak bere gastuak kubritzen ditu, eta gainera futbol zelaia berri-tzearen zorrak ere ordaintzen ari da. Kirol arloan, ona izan dela bi ekipoen lana esan zuten, nahiz eta hobeia izan zitekeen.

### Asketa abesbatza txikiak

Izugarrizko arrakasta ona jaso zuen Loiola-91rako abesbatzen ekitaldian, Azpeitian. Naparroaren izenean joanak ziren leitzar gaztetxoek, eta Elizalderen "Ama" abestiarekin jendea zutik jarri zuten txaloka. Bukarera, Gipuzkoako abesbatzen presidentea denak aipamen berezia egin zuen denen aurrean abesbatza txikiak.

## Kurtso bukaerako festa

JUANA MARI

Aresoko Guraso elkar-teak kurtso bukaerako festa antolatu zuen. Gurasoek haurrei buruzko hitzaldia izan zuten. Elkarrizketa honetan, bi psikologa zeuden zuzendari bezala eta pertsona bakoitzak bere eritzia ematen zuten.

Haurrak berri, jolastu ondoren bakoitzak bere jantzi eta tresnak hartu zi-

tuzten "itsas-gizonataz" mozarrotzeko. Bakoitzak altxor-maparen zati bat zuten eta denen artean altxor-mapa elkartu behar zuten. Ondoren, altxor hori arratsaldeko eder bat zela ikusi zuten eta denak pozik geratu ziren. Gero, txokolatada eta kurtsoa ongi bukatzeko, lehengo urteko festaren diapositibak ikusi zituzten.



Ederki pasatu zuten eskolako haurrek

(Mila)

GOIZUETA

**Xole Etxegia: ETBn kotxeak irabazten espezializatua dagoen neska**

ESTEBAN AROZENA

Zalantzarik gabe, Xole Etxegiarena kasu berezia da, ez baita normala telebistako bi lehiaketetara aurkeztu eta bietan sari nagusi bezala eskeintzen zuten kotxea irabaztea. Orain dela denboraldi bat bere ahizpa Mirarirekin bikotea osatuz Kalejira programatik ekarri zuten auto bat, eta bigarrena, duela aste batzuk Txandaka izena daraman ETBko lehiaketan lortu zuen Xolek, ondoren aipatzen ditugun beste sari haundi hauez gain: Mikro-winga, hozgailua, musika katea, bideo kamara, mendiko bizikleta, argazki kamara eta Disneilandiara bidaia.

Batzuk suerte hutsa izan dela esaten dute, baina beste askoren ustez, nola-baiteko azkartasun eta ins-tinto berezia badu neska



Goizuetako Xole Etxegia, lehiaketetan kotxeak irabazten espezialista bihurtu zaigu. Kalejira saioan bat irabazi ondoren, Txandakan izan da bigarrena. Hurrengoa, non?

honek gauza hauetarako. Behin eta berriz hau demostra dezan, beste lehiaketaren batean parte noiz hartuko duenaren zai gelditzen gara.

**Joxe Mari Bakero ezkondu zen**

Xole Etxegiarenak komentario asko sortu baditu ere, zalantzarik ez dago

azken aste hauetako protagonista nagusia Joxe Mari Bakero izan dela Goizuetan. Aspalditik iragarrita zegoen bezala, Barcelona taldean jokatzen duen futbolari ezaguna uztailaren 5ean ezkondu zen gure herriko elizan, Flor Gonzalez neskatxa xarmantarekin eta ez dago esan beharrik noski, zer nolako ikusmira eta

espektazioa sortu zuen ez-tei honek goizuetarren artean. Esan beharra dago, ezkongaien gain, beste hainbat eta hainbat pertsonai ezagun ikusteko aukera ere izan genuela: Koe-man, Laudrup, Cruyff, Begiristain, Gajate, Gorritz eta abar luze bat.

Ezkontza bukatu orduko herriarteko pilota txapelketaren partiduak jokatzen zirenez, Bakerok berak egin zuen ohorezko satea, pilota plazan bildutako ehundaka goizuetarren omenaldia jasoz txalo bero batzuen bidez. Txaloez gain, alkateak txapela bat oparitu zion herri osoaren izenean, Umore Ona Elkarteko presidentearen eskuetatik bere andreak lore sorta bat jasozten zuen bitartean.

**Drogeria MOLINERO**



**Paperak  
Pinturak  
Moketak  
Drogeria**

Tfnoa: 63 02 40  
Eztegara19  
**BERA**



**HOTZ INDUSTRIALA  
KAMARAK, BOTILATEGIAK...**

**ZERBITZU TEKNIKOA**

Tfnoa: 631108 / 630898 – BERA  
266411 – IRUÑA



**EZKONTZAK**

**Fernando Narbarte Salaberria** eta **Koro Goikoetxea Arruabarrena**, Goizueta eta Martutenekoa, ekainaren 8an.

**Andres Beldarrain Gainzerain** eta **Itziar Apezetxea Perurena**, Hernani eta Goizuetakoa, uztailaren 13an.

**Joxe Mari Bakero Eskudero** eta **Flor Gonzalez**, Goizueta eta Granadakoa, uztailaren 5ean.

**Migel Angel Undiano Landa** eta **Itziar Ustarroz Leizagoien**, Iruñekoak, Ekainaren 1ean.

**Vicente Seisedos Curto** eta **Luisa Larrainzar Etcheverry**, Lesaka eta Txilekoa, Ekainaren 8an.

**Ignacio Jaurena Jaurena** eta **Lidia Petirena Bakero**, Iruñea eta Elizondokoa, Ekainaren 15ean.

**Txomin Garmendia Galarregi** eta **Angeles Amiano Magirena**, Elizondokoak, Ekainaren 21ean.

**Jose Andres Mikelarena** eta **Juana M<sup>a</sup> Mendiburu**, Legasa eta Azpilkuetakoa, Uztailaren 6an.

**JAIOTZAK**

**Oier Apezetxea Ruiz**, Goizuetan, ekainaren 26an.

**Nerea Zabaleta Perurena**, Goizuetan, ekainaren 17an.

**Naiara Apeztegia Iturria**, Donezteben, Ekainaren 25ean.

**Mikel Unanua Arizmendi**, Gartzainen, Ekainaren 14ean.

**Iñaki Iruretagoiena Irazoki**, Elizondon, Ekainaren 22an.

**Itziar Santos Garrues**, Elizondon, Ekainaren 25ean.

**Aritz Urrutia Frias**, Iruritan, Ekainaren 29an.

**Tomas Garmendia Muñoz**, Elizondon Ekainaren 25ean.

**HERIOTZAK**

**Agustin Goizueta Goizueta**, Goizuetan, apirilaren 18an, 66 urte.

**Michel Guijarro**, Saran, 51 urte.

**Jeanne Sahastume Çubilibia**, Saran, 82 urte.

**Fermina Rodriguez Vera**, Donezteben, Ekainaren 25ean, 82 urte.

**Pedro Goñi**, Donamarian, Ekainaren 28an, 83 urte.

**Fausto Ustarroz Elizalde**, Orotzen, ekainaren 1ean, 95 urte.

**Juana Etxepare, Etxepare**, Donamarian, ekainaren 1ean, 70 urte.

**Fca. Salaburu Goñi**, Gartzainen, ekainaren 16an, 85 urte.

**Fco. Irurueta Oharriz**, Elgorriagakoa, ekainaren 13an, 82 urte.

**Maria Aleman Aleman**, Irurita, ekainaren 16an, 73 urte.

**Joaquina Rguez. Vera**, Doneztebekoa, ekainaren 25ean, 82 urte.

**M<sup>a</sup> Puy Caballero Fabo**, Elizondon, uztailaren 8an, 76 urte.

**Bautista Etxeberria Etxeberria**, Igantzin, uztailaren 7an, 71 urte.

**Lorenzo Matxikote Ordoki**, Igantzin, uztailaren 8an, 71 urte.

**MANOLO  
TABERNA**

Edari Banatzailea

Errefreskoak, Ura,  
Ardoak, Likorrak,  
Txanpaina


Tfnoa: 63 10 27 - BERA

**OLARI**

Jatetxea

Tfnoa.: (948) 45 22 54

IRURITA



\* Jatetxea haize egokituarekin hornitua

## Xorroxin irratia: "irradi municipalen bidea jorratuko dugu"

Dagoeneko irradi mankomunitate bat sortzeko tramiteak hasiak dira

*FM emisorendako lizentzia banaketa joan den udazkenean ezagutzera eman zenean, Nafarroan euskaraz emititzen zuten bi irratia lizentziarik gabe utzi zituen Nafarroako Gobernuak.*

*Euskararen baztertze honek, herrialdean kultur munduan ezagunak diren hainbat jende eta talderen salaketa gogorak ekarri zituen berekin, baita mobilizazioak ere. Geroztik, ez da irtenbide garbirik eman Nafarroako Gobernutik. Euskalerrira irratia bere hortan lizentziarik gabe segitzeko permisibitatea utzi zaion bitartean, Xorroxin irratia irradi municipalen bidea proposatzen zaio.*

*Gauzak horrela, irratia gestionatuko duen mankomunitatea sortzeko tramiteak eta beharrezkoak diren in-forme-juridikoak aztertzen hasiak ditugu Xorroxin Irratikoak.*



# Z

ein izan da Nafarroako Gobernuak eman dizuen irtenbidea zehazki?

Bat bakarra eman digu: irradi mankomunitate bat sortzea eta bide horretatik irradi municipalen lizentzia eskuratzea. Hori lortzeko eta beraiei dagokien erantzunkizunetan, eginahalak eginen zituztela ere hitz eman ziguten.

Nolanahi, azken hilabeteotan Sunbillako Udalak bide horretatik doaien iniziatiba-deialdi baten berri eman du ezagutzera eta beharbada nolabaiteko konfusioa ere sortu egin da zenbait tokitan. Zer diozue deialdi honetaz?

Konfusioa sortu bada, gure errua izan da. Lasterregi egin nahi izan ditugu-



lako gauzak eta ongi zehaztu gabe hasi garelako mugitzen. Halere, Sunbilla Udalak hartu duen iniziatiba egitan estimagarria da guretzat.

**Beraz, zein dira eman beharreko pausuak eta eskatu nahi dituzuen puntuak?**

Bueno, lehenik egin beharrekoa mankomunitatea bera osatzea izanen litzateke eta honetan gure laguntza guzia eskeini nahi diegu udalei ahal den guzian lana erraxtuz udalei, bai informe-jurudiko bat prestatuz eta baita estatuak erredaktatuz ere. Udalei konformidatea eskatuko genieke bakarrik.


Behin lizentzia eskuratu denean eta mankomunitatea sortua dagoenean, bigarren pausua lizentzia hori guri ematea izanen litzateke; guk hamar urterarako eskatzen dugu eta lortu nahi dugu aldeberean burujabetasun osoa izatea gestio ekonomikoan eta baita irratigintzan ere.. Behin hamar urteak pasatutakoan, titularitatea berriro ere mankomunitatearen esku geldituko litzateke.

**Orduan, aipatu dituzun pausu horiek emandakoan, erran daiteke Xorroxin gaur egungo egoera legala normalizatu egingen zela behingoz?**

Bai, hori argi dago; irratia legezatu egingen zen eta hori aurrerapausu izugarria izanen zen guretzat. Profesionalizatzeko bidea



Datorren urterako hamar bat milioitako aurrekontua aurrakusten du Xorroxin irratiak



—“  
*Burujabetasuna errekonozitzea funtsezkoa zaigu kalitatezko irratia egin ahal izateko.*”

hasi ahal izanen genuen eta hori irratia-erendako onuragarria izanen da dudarik gabe.

**Beldurrik ematen al dizue egoera berri honetan zuen gain gerta daitekeen kontrolak?**

Hitzegina dugunaren arabera ez. Uste dut Xorroxinek hamar urte hauetan erakutsi egin duela za-

bal, ireki eta demokratikoa dela. Alde horretatik ez dugu gauza berririk demostratu beharrik. Nolanahi ere, honek horrela segitzeko, operatibitatea izateko, burujabetasuna eskatuko diogu mankomunitateari. Beraz, ez diogu beldurrik. Gerta daitekena zera da: testuan gauzak garbi ez badira jartzen, hitzak hai-

zeak eraman ditzakeela eta beharbada egon daitekeela norbait, nolabaiteko kontrola edo iskanbila sor dezakeena.

**Zertan dago Xorroxin eskualde osoan entzutearen proiektua?**

Momentu honetan eramana dugu argia Legateko kaskorat eta bakarrik aparatoak jartzea falta zaigu. Antena horrekin eta jarriko dugun bertze batekin seguru gaude Bortzirietan ere entzunak izateko moduan egonen garela laister.

**Eta programazioan... izanen al du aldaketarik guzi honek?**

Gauzak pentsatuta dauden bezala gertatzen badira behintzat, datorren urte hasieratik aurrera, goizeko 8etatik gualde-arterteko programazioa martxan izanen dugu.

JOXEMANUEL IRIGOIEN

## ▼ Etxebizitzak

• **Beran** ongi moldatutako baserria saltzen dut. 33.000 m<sup>2</sup> terrenoa eta 100 m<sup>2</sup>tako terraza. Karretera generaletik 200 metrotara. Tfnoa: 631348

## ▼ Lana

• **OHO-EGB** klaseak emanen nituzke udan. Tfnoa: 45 04 39

• **Edozein** herriko festetan lan egingo nuke, tabernetan, jatetxetan. Deitu 510 285 telefonora.

• **Administrarritza** edota euskara klaseak emango nituzke. FPII eta Hizkuntza Eskolako tituloak ditut. Tfnoa: 637948.

• **Amaiurko** neska gazte batek edozein moduko lana egingen luke. Deitu 453 294 tfnora.

• **Udako** bestetan, ostatuetan lan egingo nuke. Tfnoa: 637 052. Lesaka.

## ▼ Denetarik

• **Silvia Mazizior**-ekin frantses klaseak hartu nahi badituzu deitu 630108ra.

• **Aziendentzat** belarra erosiko nuke. Guk moztuko genuke. Tfnoa: 45 15 18.

• **Ekipoak** alokatzen dira udalentsat, bertsolarentzat, elkarteentzat, mitinetarako, etabar. Laia musika dendara deitzea bertzerik ez duzu. 631059.

## ▼ Salerosketak

• **Ordenadorea** salgai. Inves PCX 10, 3,5eko bi disketerakoa, inprimagailua, WordStar eta mahaia, berri berria.90.000 pza. Tfnoa:634126, gauez.

• **Bajo** baten bila nabil. Soberan baldin baduk deitu gaua aldera. Garestiegia ez zaidak interesatzen. Tfnoa: 634036 (Imanol).

• **Borsini** markako akordeoia salgai. Kromatikoa, 120 baju (botoiak), oso gutti erabilia eta berria bezala. Tfno: 948-630320.

• **1.000** teila plana eta "ordeñadora andadora" salgai. Oso merke. Tfnoa: 58 10 23.

• **Ordenadorea** salgai. Amstrad PC 1512 DD, bi disketerakoa eta Open Ac-

ces programarekin. Tfnoa: 630359 (Joxean).

• **Karrera** bizikleta txikia (Razes) saltzen da. Tfnoa: 637 317.

• **Anplifikadorea** salgai kitarrantentzat -100 watio- Tfnoa: 637852 (Javier).

• **Kanping denda** familiarra salgai (bostenztako).Tfnoa: 630317.

• **Bi bizikleta** salgai. Bat paseokoa eta bertzea karrerakoa. Merkeak eta egoera onean daudenak. Deitu 637837 tfnora.

• **Idazmakina** berria salgai. Olivetti Estudio 46 markakoa, 29.000 pztatan. Tfnoa: 58 05 70.

• **Kitarra** akustikoa españolaren ordeztaldutako nuke. Tfnoa: 451565

## ▼ Harremanak

• **Arraiozko** Silbiarentzat: Zutaz maitemindua nago eta neska aluzinantea zara. Musu bero bat.

• **Mugaireko** Juan M. Altzuarde: Mutil polita, potxolo eta sinpatikoa zarelakoz. Musu haundi bat ipurdi polit hortan. Ikusiko gara, ni naiz.

• **Leitzako** Unai Zabaleta eta Iñaki Aldunzinentzat: lehen bezain jator eta langile segitzeko esanaz, B.Z. eta A.S.

• **Gartzaingo** Ainhoarentzat: Segi orain arte bezala. Aldatuko bazina ez nizuke ezagutuko. Ez aldatu inoiz. Besarkada bat. Mango's.

• **Elizondoko** Jose Javier Lournagaraiarentzat (Garrapata): Oso mutiko ganberroa zara, baina gauza horren gainetik oso majua zara. Zubieta.

• **Berako** sueko berri horrentzat: Ez zenuen horren beharrik. Noiz arte espetu behar dizudala uste duzu? Musu bat. Plazo zure herriko bestak.

• **Mertxe** Olondrizendako: bere atzetik nabilela eta maitemindurik nagoela. Muxu bat bere ikastolako mutil baten partez. A. M.

• **Berroetako** Miguel M.rentzat: Zutaz maitemindurik nago, ea hurrengo bestetan ikusten garen. Muxu bero bat zure ezpain eder hoietan eta ikusi arte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZIETA IGORRIGURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: .....

**ttipi-ttapa**

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

**ttipi-ttapa** ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK .....

HELBIDEA .....

HERRIA .....

**ttipi-ttapa**

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188


# **BERAN JAIALDIA**

**EGUNA:** ABUZTUAK 1

**TOKIA:** Eguraldi ona bada  
BERAKO PLAZAN, eguraldi  
txarrarekin ALTZATEKO  
PILOTALEKUAN

**ORDUA:** GAUEKO 11etan

# **MIKEL LABOA**



**BERAKO UDAL KULTUR BATZORDEA**  
eta Principe de Viana Erakundea

# AMAIUR

sukalde eta  
bainu  
altzariak

Rosa Seminario 13  
Tfnoa.: (948) 45 04 00  
DONEZTEBE

*Vegasa*<sup>®</sup>



## ALMACENES ETXANIZ, S.A.



Lesakako  
Iturria anaiak

Irunen, zure bainurako  
behar dituzun osagarri  
guziak: griferiak,  
manparak, mobleak,  
gres eta zeramikak

Juan Arana, 3  
Tfnoa: (943)  
61 17 67  
**IRUN**